

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEAK

Herritarren Partaidetza

Gasteizko Udalak auzo elkarte eta auzo-elkarte federazioentzako duen diru-laguntza deialdi publikoaren oinarriak (2017. urtea)

2016ko abenduaren 23an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak auzo elkarteei eta auzo elkarten federazioei 2017an diru-laguntzak emateko Gasteizko Udalaren diru-laguntza deialdiaren oinarriak.

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 14. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, oinarri horiek ALHAOn argitaratzea agintzen da.

Deialdiaren oinarriak

Deialdiaren xedea.

Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzuaren ildo estrategikoetako bat udalerriko herritarrek osatutako entitate eta taldeen lana lagundu eta erraztea da, herritarrak interes publikoko gaie-tan taldeen eta oro har herritarren parte-hartzeak dituen balioez sentsibilizatzeke, elkarrekin eztabaidatu eta hausnartuz gizartea hobetearren.

Deialdi honen xedea da Gasteizko udalerriko auzo elkarteei eta auzo elkarten federazioei beren lanean laguntzea Udalak langilerik edo baliabiderik ez duen arloetan. Horretarako, udal baliabideak eskura jarri eta hein batean diruz lagunduko ditu 2017an zehar bakarka edo auzoko beste elkarte edo gizatalderekin batera garatzen dituzten programa eta jarduerak, helburu haue-kin: parte-hartzea dinamizatzea, gizarte kohesioa bultzatzea, gizalegezko jokabideak sustatzea, integrazioa aldeztzea eta auzokoen bizitza kalitatea hobetzea.

Kontzeptu hauek hartuko dira aintzat:

Jardueren bitartez helburu hauek lortzera bideratutako proiektuak garatzeko laguntzak: eragin eremuko auzoetako elkarte sarea osatzen duten eragile guztien dinamizazioa eta gizarte parte-hartzea, eta elkarbizitza zein auzokoen bizitza kalitatea hobetzea.

Beraz, helburu hauek dituzten proiektuek jaso ahalko dute diru-laguntza:

Gizalegezko jokabideak sustatzea.

Elkarten jarduna sustatzea, dauden taldeak indartuz eta berriak sor daitezen erraztuz.

Auzo batean diharduten elkarte ezberdinen kezkak koordinatzea.

Ideiak trukatzeko espazioak sortzea.

Herritarrak hirian garatzen diren parte-hartzeko prozesuetan inplikatu daitezen erraztu eta sustatzea, bereziki haien eragin-esparruari dagozkionetan.

Berdintasuna sustatzea.

Elebitasuna sustatzea.

Integrazioa bultzatzea.

Elkarbizitza hobetzea.

Norberaren garapena sustatzea.

Informazioa eta prestakuntza.

Hauek ere sartzen dira:

Kudeaketa gastuak.

Udal titulartasuneko lokalak erabiltzeko baimena.

Aurrekontua eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa

Deialdiaren barruan ematen diren diru-laguntzak Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzuaren 2017ko udal aurrekontuetarako 18 22 9242 4 8954 aurrekontu-partidako kredituen kontura joango dira; deialdiko diru-laguntzetarako gehieneko zenbatekoa 180.000,00 euro izango dela jo da.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

Egitaraua:

Multzo hauei dagozkien programa edo/eta jarduerak jaso ahalko dute diru-laguntza:

1. multzoa: informazio, aholkularitza, komunikazio eta zabalkunde zerbitzuak ematea: argitalpenak, buletinak, aldizkariak...

Jarduera horien artean informazio eta zabalkunde gastuak sar daitezke, esaterako, kartel eta liburuxkak, itzulpenak, komunikabideetarako iragarkiak eta antzeko materialak. Oroitidazkian jaso beharko dira egindako materialen kopiak, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzen 19.3.b artikuluan xedatutakoaren ildotik. Betiere, material guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute.

2. multzoa: prestakuntza eta aisialdia. lantegiak, ikastaroak, hitzaldiak... Udaleko beste sail batzuek horrelako ekitaldietarako berariazko laguntzarik ematen badute, berariazko deialdi horietara aurkeztu beharko da.

Ez dira onartuko ikastaro eta lantegietan erabilitako materialen fakturak, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

3. multzoa: herritarren parte hartzea eta auzoko beste talde batzuei laguntzea: eztabaidak, mahai inguruak, biltzarrak, topaketak, foroak... Zabalkunde eta sentiberatze kanpainak, auzo bakoitzaren berariazko arazoekin lotutako gaiez zein beste gai batzuei buruz: berdintasuna; iraunkortasuna; gizalegezko jokabideak, auzoa garbi eta txukun egon dadin; zailtasunak dituzten taldeei arreta ematea; giza eskubideak ezagutu eta errespetatzea; boluntariora sustatzea; balioetan hezteak; belaunaldien eta kulturen arteko bizikidetzak, eta abar. Parte hartzeko organoetan eta udal programetan aritzea. Erakartzeko kanpainak. Gizarte etxeekin lankidetzan aritzea.

4. multzoa: gizarte jarduerak: berariazko udal laguntzarik gabeko kirol-, kultur- eta jai-ekitaldiak antolatzea, horien helburua bizikidetzak hobetzea eta auzokoen arteko harremanak, lankidetzak eta integrazioa sustatzea bada. Auzokoek elkarri laguntzeko programak.

Ez dira diruz lagunduko beste udal sail eta zerbitzuen programazioan sartutako jarduerak, haien osagarri izan ezean.

Proiektu global batean sartuko dira jarduerak guztiak, eta bertan alderdi hauek zehaztu beharko dira:

Elkartearen aurkezpena.

Proiektuaren jatorria eta oinarriak.

Proiektuaren izena.

Proiektuaren helburu orokorrak eta jarduera edo/eta zerbitzu bakoitzaren berariazko helburuak.

Jarduerak eta ekintzak.

Hartzaileak.

Denbora banaketa.

Jardueren kokapen fisikoa.

Baliabideak.

Giza baliabideak.

Materialak.

Ekonomikoak

Aurrekontuaren aurreikuspena (egokiro banakatua).

Ebaluatzeko eta balioesteko irizpideak.

III. eta IV. eranskinetan elkarteei proiektuaosatzen laguntzeko eskema didaktikoa agertzen da.

2.2.2. Ekipoak eta lokalak kudeatu eta onik zaintzeko gastuak:

Emandako diru-laguntzaren kontura gehienez 2.100,00 euro erabil daiteke horretarako, eta justifikatu.

Ekipoak eta lokalak kudeatu eta onik zaintzeko gastu hauetarako jaso ahalko da diru-laguntza:

Bulegoko material suntsikorra erostea.

Telefono-lineari eta ADSL konexioari loturiko gastuak. Telefono-lineari eta Interneteko konexioari loturiko gastua, gehienez, urteko 800,00 euro izango da. Web domeinuak erosi edo mantentzeari dagozkion fakturak ere onartuko dira.

Lokalak garbitzeko gastuak, garbiketa-produktuenak barne.

Ekipoak onik zaintzeko materialak edo zerbitzuak.

Lokalei dagozkien aseguruaren polizak, eta elkartearen edo federazioaren erantzukizun zibileko asegurua. Berariazko erantzukizun zibileko asegurua eskatzen duten jardueren kasuan –esaterako, jaiak antolatzea–, horren kostua jardueren atalean sartuko da.

Posta-gastuak.

Ez da diru-laguntzarik emango suntsikorra ez den materialerako, esaterako: ordenagailuak, inprimagailuak, etxetresna elektriko txikiak, ikus-entzunezko gailuak, bulegoko altzariak... Honelakoak ez dira inola ere diruz lagunduko: janariak edo edariak; opariak, zozketak, Gabonetako saskiak, lehiaketak eta antzekoak barne; txangoak, eta antzeko ekintzak.

Udalaren lokalak erabiltzeko baimena.

Udalaren titulartasuneko lokalak dira, auzo elkarteei uzten zaizkienak.

Lokala erabiltzeko baimena edo lagapena elkarte bakarrarentzat izan daiteke, auzoan elkarte bakarra bada edo Udalak horretarako hainbat lokal baditu; bestelakoetan, erabiltzeko baimena edo lagapena auzoko elkarte guztiek partekatzea izango da.

Baldintza hauek ezartzen dira:

Aretoa bakarka edo beste elkarte batzuekin batera –adierazten denaren arabera– erabiltzeko baimendu edo lagatzen da, baimenak indarrean jarraitzen duen bitartean.

Baimena doakoa izango da, eta ez da inolako bermerik aurkezteko eskatuko.

Beste elkarte batzuekin batera erabiltzekoa dela adierazten bada, elkarrekin jakitun dira aretoa elkarren artean banatu behar dutela eta hitz ematen dute lekua partekatze ko koordinatuko direla. Aretorearen erabilera partekatzerakoan tirabirarik sortuz gero –horietako edozeinek idatziz adierazitakoa– Udalak erabakiko du elkarte bakoitzarentzat lekuak edo denbora nola banatu, aldeei entzun ondoren.

Udalari dagokio aretoa onik zaintzea, baita hobekuntza edo aldaketak egitea ere. Horrelakorik egin behar bada, eskaera justifikatua bideratuko zaio, aurreikusitako diru-kopurua adieraziz. Sailak eskaera horien bideragarritasuna aztertuko du, eta idatziz erantzungo du, epe barruan, eskaera aurrera atera daitekeen ala ez, eta ekimenaren ondorio ekonomikoez. Edonola ere, ez da baimenduko eraikinean edo bertako edozein gelatan obrarik egitea, ez bada Udalak berariazko baimen idatzia emanda.

Erabilera baimena edo lagapena zergetatik aske dago (OHZ, zaborrak), eta energia (elektrikoa edo/eta gasa) eta ur kontsumoa Udalaren kontura joango dira.

Elkarrekin beren gain hartzen dute ondasunaren erabilera edo bertan egiten diren jarduerak behar lituzketen lizentzia eta baimenak aurretiaz eskuratzeko ardura.

Elkarrekin beste talde batzuei utzi beharko diete aretoa erabiltzen, talde horiek auzoan edo inguruan bizikidetzaren eta gizarte-sustapenaren alde badihardute, beti ere baimen honetako baldintzak betez.

Herritar erakundeak bere gain hartzen du lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta bere jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteez erantzungo du. Udalak ez du lokala erabiltzen baimentzea edo hura uztea beste ardurarik bere gain; beraz, ez du –ez zuzenean ez subsidiarioki– egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko ardurarik hartuko bere gain. Elkarrekin dagokio erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea, eta lagapenak irauten duen bitartean indarrean izatea. Gasteizko Udalak aseguratuko gehigarri gisa geratuko da, baina ez du horregatik hirugarrenaren izaera galduko.

Halaber, elkarrekin suteen aurkako edo arrisku anitzeko aseguru kontratatuko du, estaldura gutxienez birjarpen- eta/edo konpontze-balioaren parekoa izango delarik (Udalak adieraziko dio balio horren zenbatekoa).

Elkarrekin kontratatutako aseguruaren kopia eta aldian aldiko eguneratzeen kopiak helaraziko dizkio Udalari.

Elkarrekin badakite (eta onartzen dute) Gasteizko Udalak eskubidea duela lagapena bere kabuz baliogabetzeko, interes publikoa dela kausa, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako kasuetan, eta ez duela horregatik ordainsaririk eman beharrik.

Gasteizko Udalak baimendutako aretoa ikuskatzeko eskubidea izango du, erabilera baimenean zehaztutakoarekin bat datorrela bermatzeko.

Baimenaren/lagapenaren indarraldia luzatuz gero, urtebeterako izango da.

Baimena/lagapena iraungitzat joko da arrazoi hauetakoren bat dela eta: gehienezko epea gainditzea; nortasun juridikoa iraungitzea; eskualdatu edo aldatuz gero aurretiazko baimena ez izatea; erabiltzailearen edo emakidadunaren nortasun juridikoa fusio edo zatitzea; alde batego baliogabetzea; alderdiak ados jartzea; baimenaren titularrak betekizunak larriki ez betetzea, baimena eman zuen organoak adierazitakoa; ondasuna desagertzea; ondasunaren atxikidura kentzea, eta zuzenbideak aurreikusitako beste edozein arrazoi, eta zehazki, aretoa elkarrekin berariazko jardueretarako ez erabiltzea edo hiru hilabetetik gorako epean ez erabiltzea.

Formalizatzen diren hitzarmenetan aurrekoen osagarri ezar daitezkeen gainerako baldintzak.

Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira baliabide hau eskuratu ahal izateko.

Eskatzaileak. Udal baliabideak eskuratu ahal izateko betebeharrak.

Auzo elkarteak eta auzo elkarten federazioak, baldin eta beren estatutuetako xedeetan argi eta garbi adierazten bada auzo elkarte izaera dutela, eta helburuetako bat deialdi honen xedearekin lotutako jarduerak egitea bada. Jarduera eremuak Gasteizko udalerriko auzo bat –edo batzuk– barne hartu beharko du. V. eranskinean dago jasota Gasteizko auzoen zerrenda.

Baztertuta geratzen dira:

Bazkideen interesak babestea edo jabe talde jakin baten zerbitzu komunak kudeatzea xede duten elkarte, federazio eta bestelako erakundeak.

Beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten erakundeak.

Arrazoi etniko, erlijiozko, politiko edo sindikalak tarteko edonori zuzenbide osoz parte hartzea galarazten dioten erakundeak.

Betebeharrak:

Auzo elkarte edo auzo elkarten federazio gisa eratuta egotea, eta jarduera-eremua Gasteizko udalerrria izatea.

Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistro Nagusian –edo dena delako Erregistro Publikoan– izena emanda egotea, eta datuak eguneratuta edukitzea.

Diru-laguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, entitate eskatzaileek betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak bete behar dituzte. Obligazio hori eskabidea aurkeztzen denean bete beharko da, baina baita prozesu osoan ere (diru-laguntza ematen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean nahiz diru-laguntza ordaintzen denean).

Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Aurkezteko epea:

Eskabideak 2017ko otsailaren 28ra arte (egun hori barne) aurkeztu ahalko dira .

Argibideak eta agiriak

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskariarekin batera:

I. eranskina: Diru-laguntzaren eskabidea.

II. eranskina: Auzo elkarten komunikazio eta partaidetza bideak

III. edo IV. eranskinak: 2017. urterako jarduera-proiektua

V. eranskina. Gasteizko auzoen zerrenda

Eskabideak egiteko oinarri hauetan ageri den eredia erabili beharko da, zein udalaren web-orrian eskura baitaiteke vitoria-gasteiz.org/subvenciones; vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko udalaren web-orrian egongo da eskuragarri www.vitoria-gasteiz.org bai eta Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialetan.

Tramitazioa.

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan <https://helbideelektronikoa.vitoria-gasteiz.org> nahiz legeaz aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Diru-laguntzaren eskabidea zuzen formalizatuta ez dagoenean edo daturen bat falta zaionean, edo eskatutako agiriren bat aurkeztzen ez bada, pertsona edo entitate eskatzaileari akatsa konpontzeko eskatu beharko zaio, eta ohartarazi hala egiten ez bada eskabidea beste barik artxibatuko dela.

Nolanahi ere, diru-laguntzaren bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketak guztira inolaz ere ezingo du gainditu aurkeztutako proiektu edo jardueraren benetako kostua.

Gasteizko Udalak egoki irizten zaizkion argibide eta agiriak eskatu ahalko dizkie pertsona edo entitate eskatzaileei, aurkeztutako diru-laguntzarako eskabidea balioesteko.

Agiriak aurkezteko bideak

5.1 Aurrez aurre

5.1.1 Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea

Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak.

Halako euskarrian jasotako artxibo grafikoak eta/edo testu artxiboak pdf formatuan gordeta egon beharko dira, eta agiriak ez dira karpetan banatuko, baizik eta maila bakarrean aurkeztuko.

Lan edo agiri topografikoek oinarri kartografikoa izatea xede badute, dwg eta pdf formatuetan aurkeztu behar dira.

Euskarri digitalean dauden agiri guztiak dokumentazioa euskarri digitalean aurkezteari buruzko erantzukizunpeko aitortpena egiteko orriekin batera aurkeztuko dira; udalaren web-orritik deskargatu ahal da hori. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emana (dagokiona) egon behar du.

Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

5.1.2 Dokumentazioa paperean aurkeztea

Agiriak paperean aurkeztuz gero, DIN A4 edo DIN A3 tamainakoa izan behar du, eta herritarrei laguntzeko bulegoan digitalizazioa errazteko, nahitaezkoa izango da orri solteak aurkeztea, grapa, klip edo multzokatzeko inolako sistemarik erabili gabe.

Eskabideari paperezkoa ez den euskarri batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta beraz, hori digitalizatzerik ez badago, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, deialdian adierazitako diru-laguntzen ildoak zein udal zerbitzuri dagokion zehaztuz.

5.2. Egoitza elektronikoaren bidez

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>. helbidean ezarritakoari jarraituz.

Balioespen-irizpideak:

Baremoaren arabera, gehieneko puntuazioa 150 puntukoa da, eta 50 lortu beharko dira gutxienez deialdian eskaintzen diren baliabideak eskuratu ahal izateko.

Lau irizpide multzo ezarri dira:

6.2.1. Elkarteari dagokionez:

Bazkide kopurua (behar bezala egiaztatua)

1-20 kide: puntu 1.

21-50 kide: 2 puntu.

51-100 kide: 3 puntu.

101-200 kide: 4 puntu.

200 kidetik gora: 5 puntu.

Auzo elkarten federazioen kasuan:

Udalerriko 1 eta 5 elkarte federatu bitarte: puntu 1.

Udalerriko 6 eta 10 elkarte federatu bitarte: 2 puntu.

Udalerriko 11 eta 15 elkarte federatu bitarte: 3 puntu.

Udalerriko 16 eta 20 elkarte federatu bitarte: 4 puntu.

Udalerriko 20 elkarte federatutik gora: 5 puntu.

Elkartearen edo federazioaren bazkide kopurua erakundearen idazkariak sinatutako zinpeko aitortpenaren bidez egiaztatu behar da; Udalak aitortpenean jasotakoen egiaztapenak eskatu ahal izango ditu.

Auzoko bizilagunei arreta ematea. Komunikazio eta informaziorako bideak. Jendaurreko ordutegia, postontzia, kartelak, argitalpenak, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa, web-orria, eta abar. Gehienez ere 10 puntu.

Elkartearen barruan batzorde edo lan-taldeak edukitzea. Aipatu: 5 puntu gehienez

Partaidetza-organoetan parte hartzea: auzogune eta elkarguneak Gehienez ere 10 puntu.

Auzoko beste elkarte eta gizarte eragile batzuekin lankidetzan aritzea, programa edo jarduerak antolatzeke. Zehaztu egin beharko da zein programa edo jardueratan gauzatzen den lankidetzak hori. Gehienez ere 10 puntu.

Udalak bideratutako programa, plan eta partaidetza-prozesuetan laguntzea. Gehienez ere 5 puntu.

Elkartearen ezarpen maila. Kontuan hartuta hiriko auzo batzuetan auzo elkarte bat baino gehiago dagoela, 24 puntu banatuko dira hiriko auzo bereko ordezkari gisa aurkezten direnen artean. Hartara, proiektu bakarra aurkezten den auzoen kasuan, proiektu horrek 24 puntuak lortuko ditu. Hortik abiatuta, auzo berean aurkeztutako eskabideen artean banatuko da kontzeptua. Gehienez ere 24 puntu.

Federazioen ezarpen maila. 24 puntu gordeko dira kontzeptu horretarako, auzo elkarten federazioen artean banatzeko. Gehienez ere 24 puntu.

Guztira, atal honetan: 69 puntu.

Proiektuari dagokionez:

Oinarriak. Diagnostikoa. Auzoko errealitatea ezagutzea: auzoaren deskribapena, beharriak, biztanleak, indarguneak. Lortu nahi diren helburuak zergatik ezarri diren azaltzeko arrazoiak. Gehienez ere 12 puntu.

Proiektuan 2017rako planteatutako helburuak, aurreko puntuan azaldutako auzoko errealitatearekin zerikusia dutenak. Gehienez ere 10 puntu.

Helburuen eta jardueren arteko koherentzia. Proposatutako helburu bakoitza horiek lortzeko egin beharreko jarduerekin batera zehaztu beharko dira. Gehienez ere 10 puntu.

Ebaluazioa. Erabilitako ebaluazio sistemak. Proiektuan erabilitako irizpideak eta adierazleak: inkesta eta iritzi galdeketa auzokoei, eta auzoan gertatutako aldaketak islatzen dituzten agiriak. Lortu nahi diren emaitzak aipatzea. Gehienez ere 6 puntu.

Guztira, atal honetan: 38 puntu.

Jarduerari dagokionez:

Jarduera-aniztasuna (1., 2., 3. eta 4. multzoak). Gehienez ere 4 puntu.

Proposatutako jardueren eragina, hartzaileen kopurua, aniztasuna (populazio sektoreak) eta oihartzuna kontuan hartuz. Gehienez ere 5 puntu.

Zeharkakotasuna sustatzen duten ekintzak: euskara, berdintasuna, irisgarritasuna, gizarte-inklusioa. Gehienez ere 4 puntu.

Jarduera kopurua. Gehienez ere 10 puntu.

Jarduera urte osoan banatzea. Gehienez ere 5 puntu.

Auzokideen parte-hartzea sustatzeko jarduera zehatzak: auzo biltzarrak, kanpainak, auzo osoarentzako jarduerak, kontsultak, komunikazio kanalak, jardunaldiak. Gehienez ere 15 puntu.

Guztira, atal honetan: 43 puntu.

Guztira, proiektuan: 150 puntu.

Diru-laguntza emateko prozedura.

Laguntza hauek emateko norgehiagoka erabiliko da, hau da diru-laguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, hartara lehenetasun-hurrenkera ezartze aldera —aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera— eta puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie diru-laguntzak, beti ere deialdiaren berariazko oinarrietan finkatuko aurrekontu zuzkiduraren kopurua inola ere gainditzen ez badu.

Diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko eta gutxieneko zenbatekoa

Lehenengo proiektuak balioetsiko dira, oinarri hauetako 6. artikuluan ezarritako balioespen irizpideak kontuan harturik.

Kalkulatzeko garaian, 50 puntu baino gehiago lortu duten eskabideak baino ez dira aintzat hartuko. Beraz, puntuazio hori lortzen ez duten proiektuak laguntzak banatzeko prozesutik kanpo geratuko dira eta, horrenbestez, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Elkarte bakoitzari dagokio deialdi honetan diru-laguntza gisa eskatu nahi den zenbatekoa zehaztea. Elkartea edo elkartearen federazio bakoitzak diru-laguntza gisa jaso ahalko duen gehienezko kopurua izango da hori. Ez da elkartea edo elkartearen federazioak eskatutako kopurua gainditzen duen diru-laguntzarik emango, ez eta oinarri hauetan diruz laguntzeko ezarritako gehienezko kopurua gainditzen duenik ere.

Gutxienez 1.500,00 euroko diru-laguntza emango da, baldin eta proiektuaren balioespenean 50 puntu lortzen badira, eta gehienez, 15.000,00 euro.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko formula.

Deialdiaren oinarrietan ezarritako gutxieneko puntu kopurua (50 puntu) gainditzen duten auzo elkarte edo federazio guztiei 1.500,00 euro esleituko zaie hasteko.

Aurrekontu osoari aurreko puntuan ezarritakoaren arabera esleitutako zenbateko osoa kenduko zaio.

Gainerako zenbatekoa honela esleituko da:

Aurrekontuaren gainerako zenbatekoa auzo elkarte eta federazio guztiek lortutako puntuen artean zatituko da —laguntza eskuratzeko elkarte edo federazio bakoitzak gutxienez lortu behar dituen 50 puntuak kenduta—, eta hori puntu bati dagokion balioa izango da.

Ondoren, balio hori eta auzo elkarte eta federazio bakoitzak lortutako puntuak biderkatuko dira —gutxieneko 50 puntuak kenduta— eta horren arabera lortuko da bakoitzari esleitu beharreko kopurua.

Lortutako zenbatekoa auzo elkarteak edo federazioak eskatutakoa baino handiagoa bada, soberako zenbatekoa kenduko zaio eta funts bat sortuko da, berriro ere banatuko dena.

Funts hori behar den guztietan banatuko da berriro, 2. puntuaren erabilitako irizpide berari jarraituz, eta banaketatik bazter utzita eskatutako zenbatekoa dagoeneko lortu duten auzo elkar-teak edo federazioak.

Instrukzioa eta ebazpena

Behin eskabideak jaso eta kasu bakoitzean eskatutako betebeharrak bete direla egiaztatu ondoren tramiterako onartu direlarik, balioesteko txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena idatziko dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera.

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta horrek ofizioz egingo ditu eskatutako diru-laguntzen ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, balioespen-batzorde tekniko bat eratuko da, Partaidetza eta Gizarte Etxeen zinegotzi ordezkariak eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek osatutakoa. Batzorde horrek dagokion ebazpen-proposamen indibidualizatua aurkeztuko dio ebazteko eskumena duen organoari.

Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna, baina zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahalko dio eskumena.

Ebatzi eta jakinarazteko epea.

Gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, diru-laguntzaren eskabidea ezetsizat joko da.

Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

Diru-laguntzak emateko ala ezezteko erabakiak administrazio bidea agortzen du, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahalko du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen duen egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Birformalazioa

Diru-laguntzaren helburua pertsona eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea bada eta behin-behineko ebazpen-proposamenaren arabera diru-laguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa bada, pertsona edo entitate onuradunari eskabidea birformulatzeko eskatzerik izango da, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzara doitu ditzaten.

Organo instrukzio-egileak eskabidea ontzat ematen duenean, organo eskudunari helaraziko zaio egindako guztia, dagokiona ebatz dezan.

Edonola ere, eskabideen birformulazioak errespetatu egin beharko ditu diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua, bai eta eskabideetarako ezarritako balioespen-irizpideak ere.

Uko egitea.

Diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren, entitate onuradunak hari uko egitea eska dezake Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, eskabide normalizatuaren bitartez.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehenago aurkeztu beharko da uko-agiria, eta dagokion zinegotzi ordezkariak onartu ondoren izango ditu ondorioak; kasua hala balitz, itzuli egin beharko lirarteke jasotako diru-kopuruak.

Diru-laguntza ordaintzea:

Diru-laguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, ordainketa aurreratu gisa, lortutako puntuak eta baliagarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, deialdia ebatzi eta interesdunei jakinarazi ondoren, inolako bermerik jarri beharrik gabe.

Edonola ere, erabilera baimen bakarra eta zenbateko bakarra emango zaio elkarte bakoitzari, programan aurkeztutako jarduerak garatzeko.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da diru-laguntza, auzo elkarteak eskabidean horretarako adierazi duen kontu korrontean.

Honako kasuetan ez da diru-laguntzarik ordainduko: entitate onuradunak udalak emandako diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ez eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun bada ere.

Diru-laguntzak justifikatzea

Justifikatzeko epea Erakunde onuradunek egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu beharko dute 2018ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Justifikatu beharreko zenbatekoa:

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion Udalak emandako diru-laguntzari.

Beste ente publiko edo pribatu batzuek finantzatzen badute proiektua edo jarduera, eta/edo baliabide propioak erabiltzen badira, hori justifikatu eta kostu osoa egiaztatu beharko da. Halakoetan, azken justifikazioarekin batera adierazpen bat aurkeztu beharko da, I-J eranskina (Beste erakunde batzuei egotzitako gastuen zerrenda) baliatuz, eta bertan diruz lagundutako proiektuari egozten zaizkion gastuak oro zerrendatuko dira, izenak zehaztuz.

Justifikatzeko sistema.

Diru-laguntzen onuradunek justifikazioko kontua aurkeztu beharko dute jasotako diru-laguntza justifikatzeko, ondoren adierazitakoari jarraituz.

Dokumentazioa aurkezterakoan oinarri hauetan agiriak normalizatzeko emandako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balioespena barne.

Diru-laguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, biltzarretarako deialdiak, jaietako kartelak, aldizkariak kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

Jardueren kostua justifikatzeko txosten ekonomikoa. Xehetasun hauek jaso beharko ditu:

Egindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zeinean datu hauek zehaztuko baitira: zorduna, zenbatekoa, emate-data eta ordainketa. Horretarako, entitate onuradunak koadro batean zehaztuko ditu emandako diru-laguntzari dagozkion fakturak, kontzeptuka bilduta (II-J eranskinaren arabera).

Diru-sarrera eta gastuen balantzea, III-J eranskinaren arabera.

Diruz lagundutako jarduerari dagozkion jatorrizko fakturak, eta ordain-agiri horiek laguntzak xede duen helburua betetzeak sortu dituela egiaztatzeko agiria zein agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeko agiria, IV-J eranskinari jarraituz.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Jaso-izanaren agiria izenpetzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, bestela dagokion faktura egin eta eman beharko bailuke ezinbestean.

Jaso-izanaren agiriak datu hauek bildu behar ditu:

Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.

Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.

PFEZaren atxikipena (dagokion Zerga agentzian egindako atxikipena sartu izanaren agiria erantsi behar da).

Tokia, data eta jasotzailearen sinadura

Langileen gastuak nominaren eta onuradunaren konturako Gizarte Segurantzaren TC2 agiriaren bidez justifikatu beharko dira. Gastua diruz lagundutako jarduerari dagokiola justifikatzen duen erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da nominekin eta TC agiriarekin batera, egotzitako denbora eta kopuruak zehaztuta (V-J eranskina). Kasua bada, elkarteak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik izan ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena (VI-J eranskina) aurkeztu beharko du.

Onuradunaren adierazpena, eta bertan zehaztuta diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, kasua hala balitz, bestelako laguntzarik eskuratu ez duela adierazi beharko du (VIII-J eranskina).

Emandako diru-laguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa:

Justifikazioaren betebeharra ez betetzeak edo justifikazio eskasak jasotako kopuruak eta horiei dagokien interesak itzuli behar izatea ekar lezakete, Diru-laguntzei buruzko Lege Nagusiaren 37.1 artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Ez dira onartuko:

Honako datuak agertzen ez dituzten fakturak: faktura zenbakia; eman zeneko eguna; izen-abizenak, erakundearen izen osoa, bai faktura eman behar duenarena bai hartzen duenarena; zerga administrazioak emandako identifikazio fiskalerako zenbakia; helbidea, faktura eman behar duenarena nahiz hartu behar duenarena; eragiketen deskribapena, balio erantsiaren gaineko zergaren oinarri ezargarria zehazteko beharrezko datu guztiak jasoko dituen; eragiketei, kasua denean, ezartzen zai(zki) on zerga tasa(k); kasua denean, jasanarazten den zerga kuota, bereiztuta kontsignatu beharrekoa; jasotako eragiketak burutu diren eguna, edo aurretiazko ordainketa egin denekoa, faktura eman den egunarekin bat ez datorrenean. Fakturan dokumentatzen den eragiketa BEZa ezartzetik salbuetsita badago, edo ezarri behar ez bazaio, edo hari dagokion zergaren subjektu pasiboa bada hartzailea, dagozkion xedapenen erreferentzia adierazi beharko da bertan eta, kasua denean, zerga administrazioak aitortutako salbuespena egiaztatzen duen agiria (adibidez, Arabako Foru Aldundiak zenbait eragiketetan BEZ ez ordaintzeko salbuespena aitortu die irabazteko asmorik gabeko elkartei).

Honako datu edo baldintzak agertzen ez dituzten txartelak: zenbakia; identifikazio fiskalerako zenbakia; izen-abizenak, faktura eman behar duenaren izen sozial osoa; zerga-tasa edo BEZa barne adierazpidea. Kontraprestazio osoa.

Onuradunak diru-laguntzaren publizitatea egitea.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten auzo elkarteek Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela azaldu beharko dute, argi eta garbi, publizitaterako baliatzen dituzten bitarteko guztietan.

Halaber, udalaren finantziarioa publikoki agertu beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten inprimakietan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektroniko eta ikus-entzunezkoetan, iragarkietan, eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsiko da testu honekin: “Gasteizko Udalak diruz lagundutako proiektu honen edukiaren erantzule osoa eta bakarra entitate onuradunarena da.” Udal sailek helaraziko diete udal logotipoa entitate onuradunei.

Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, gaztelania eta euskara, Euskal Autonomia Erki-degoan diru-laguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

Azpikontatazioa.

Onuradunek jarduerak azpikontatatu ahal izango dituzte, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. eta 29.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Programa aldatzea.

Diruz lagundutako programa edo jardueraren funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, berariaz eta egin aurretik eskatu beharko zaio Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuari.. Horretarako baimena jaso ondoren gauzatu ahalko da aldaketa, ez besterik. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

Beste laguntzekiko bateragarritasuna

Gasteizko udalak ematen dituen diru-laguntzak beste administrazioek edo entitate publiko nahiz pribatuek emandakoekin bateragarriak izan behar dute.

Dena den, diru-laguntzen eta bestelakoren bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako jarduera edo programaren kostu osoa baino handiagoa izan.

Arau-hausteak eta zigorrak

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

Interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak.

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Oinarri hauetan eta hainbat planetan aipatzen diren udal ordenantza eta araudiak — berdintasun plana, euskara plana, udalaren gazte plana, mugikortasun plana irisgarritasun plana, herritarren partaidetzaren plana, udalaren araudi grafikoa eta normalkuntza linguistikoa— Gasteizko Udalaren web orrian kontsultatu ahalko dira www.vitoria-gasteiz.org.

Udalak ematen dituen diru-laguntza eta laguntzak udalaren web-orrian www.vitoria-gasteiz.org argitaratuko ditu, zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak (DBLOaren irizpideak kontuan harturik) zehaztuta, hala xedatzen baitute Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak II. kapituluko 8. c) artikuluan, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak II. kapituluko 55. i) artikuluan.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 11n

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko administrazio burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS



www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udaleri diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO

Konkurrentziaz eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.

Adierazi hemen ☐

Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatzeko.

Adierazi hemen ☐

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

Adierazi hemen ☐

Baimen horiek UKATUZ gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren beteak dituzuela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.

Adierazi hemen ☐

